

## **2023-2024 IKASTURTEKO FEEL MY WAY KOOPERATIBAREN IKAS BIDAIETAKO ARAUDIA** **(Salouko bidaiak - DBH4)**

Dokumentu honetan biltzen diren arauak bidaiaren betetzea derrigorrezkoak direnak izango dira. Hortaz, bidaiaren irteera baino lehen, puntu bakoitza zuzen irakurtzea derrigorrezkoa izango da.

### **ARAUAK**

- **Ostatuetan**, haiek ezarritako arauak errespetatu beharko dira:
  - Otordu guztietako **ordutegiak errespetatzea eta guztietara agertzea**.
  - **Otorduak** egiten diren unean, elkarbitzita arauak betetzea:
    - Parte-hartzaile bakoitzak bere alergía edo eskakizun bereziak kontrolpean izan behar ditu. Horrenbestez, lehenengo egunean, parte-hartzaile hauek laguntzaileekin hitz egin beharko dute hornitzaileek alergía edo eskakizun bereziak kontuan dituztela bermatzeko, eta hornitzaileei abisua pasatu ahal izateko.
    - EZIN DA janaria botata; behar den janaria bakarrik hartuko da; EZINGO DA janaria hoteleko jantokitik kanpora atera eta ilarak egonez gero, errespetatu egin behar dira.
  - Lasaitasuna eta jarrera egokia izan beharko dira, hoteleko langileen presentzia kontuan izanik:
    - Kaosa ekiditeko altu hitz egitea ekiditea.
    - Ateetan kolperik EZ.
    - Korridoreetan garrasirik EZ.
    - Korridoreetan korrikarik EZ.
    - Beste logeletako balkoietan dauden kideei garrasirik EZ egin.
    - Logeletan zaratarik EZ ateratzea, ezingo da logelako musikaren zarata korridoretik entzun.
    - Logeletan EZINGO dira logela horretako edukieraren bikoitza baino pertsona gehiago elkartu.
  - **Altzari eta bestelako objektuak errespetatu** beharko dira eta erabiltzaileen eskura jarriko den edozein material.
  - **“Balconing” egitea guztiz debekatuta dago.**
  - **Logeletan eta zona komunean, alkohola edo bestelako substantzia ilegal psikotropiko eta estupefazianteak kontsumitu, manipulatu eta salerosketa egitea guztiz debekatuta dago.** Laguntzaileek produktu horiek konfiskatzeko baimena bakarrik, bidaiako ohiko errutinetan aurkitzen badituzte izango da, hau da laguntzaileek ez dituzte inoiz sarekadak (redada) egingo. **Guraso edo tutore legalek euren seme-alabei bidaiatzeko baimena ematean, aurreko puntuko substantziak erretiratuak izango direla onartzen dute, bidaiaren jarraipen egokia bermatzeko. Kontuan izan behar da, produktu hauek konfiskatzea, parte-hartzaileen errutinan arau hau hausten bada bakarrik egingo dela.**

—Hay ciertos conceptos jurídicos determinados de carácter técnico que han sido traducidos directamente del castellano, por lo tanto, ante cualquier duda, rogamos se dirijan al documento en castellano para su mejor comprensión <https://labur.eus/fqHsl> —

- Bidaiaiko **hornitzaileekin jarrera lasaia eta errespetuzkoa** izan beharko da. Ez da onartuko errespetu faltarik eta laguntzeko daudenez, azken hitza haiena izango da. Gainera, haien materiala garbi eta ondo zaindu beharko da.
  - **Adibidez: Autobusean ezingo da ezer jan. Geldialdiak egingo dira, eta bertan aprobetxatuko da otorduak egiteko. Bidaiak luzeak diren kasuetan, autobus gidariak baimena emanaz gero jatea posible izango da; baina nahitaez autobusa garbi mantendu beharko da, zaborra poltsetan jasoz.**
- Bidaiko edozein hornitzaileekin (batez ere ostatuetan eta autobusean), **iritsi bezain laister zerbait apurtuta badago** argazkiak aterako dira eta Feel My Wayko laguntzaileekin batera, hornitzaileei abisua pasako zaie, ondoren gaizki-ulerturik egon ez dadin. **Hortaz, orduetik aurrera zerbait apurtuta egonez gero, gela horretako ikasleen ardura izango da.**
- **Bizikidetzatza:**
  - **Taldeko bilerak egiten direnean parte hartzea eta isiltasuna mantentzea.** Adibidez, lehenengo egunean iritsi bezain laister, bilera bat egingo da eta bertaratzea derrigorrezkoa izango da. Horrez gain, baliteke gainontzeko egunetan ere beste bilera batzuk egitea, eta **guztietara joatea derrigorrezkoa izango da.**
  - Plangintzan **jarrera proaktiboa** izatea (ekintzetan parte hartzen, umoretsu, gogotsu...), jarrera pasiboak ekiditen.
  - **Errespetuzko taldea izan behar gara**, eta ez dira hainbat jarrera inondik inora onartuko: beste taldekideekiko errespetu faltak, komentario ez-aproposak, besteei barre egitea, baimenik gabe argazki edo bideoak ateratzea...
  - Feel My Wayko laguntzaileek esaten dutena errespetatzea (ordutegiak, arauak, erabakiak...).
- **Taldearen segurtasuna:**
  - **Taldea bidaiari zehar batera ibili behar da.** Honen helburua, taldearen babesa bermatzea izango da. Dena dela, bidaiari zehar **denbora libreko uneak** egongo dira, eta une hauetan parte-hartzaile bakoitza bere buruaren arduraduna izan beharko da. Era berean, garrantzitsua izango da ikasleek laguntzaileei non dauden jakinaraztea, prebentzio bezala. Hala eta guztiz ere, kontuan izan beharko da Feel My Way Kooperatiba eta bertako laguntzaileak ez direla une hauetan gertatzen denaz arduradun egingo (ez parte-hartzaileen ongi izateaz ezta hauek egin ditzazketen akzioez ere), ez direlako elkarrekin egongo.
  - Bidaiari zerbait gertatzen bada, **derrigorrezkoa izango da Feel My Way Kooperatibako laguntzaileei edozein inzidentziaren berri ematea** gertatzen den momentuan, Feel My Way Kooperatibako laguntzaileek denboran eta modu egoki batean lagundu ahal izateko.

—Hay ciertos conceptos jurídicos determinados de carácter técnico que han sido traducidos directamente del castellano, por lo tanto, ante cualquier duda, rogamos se dirijan al documento en castellano para su mejor comprensión <https://labur.eus/fqHsl> —

- Poliziak edo **legezko autoritateek ikasleak legezkoa ez den zerbait egiten harrapatuz gero**, Feel My Way Kooperatibako laguntzaileek ahal den unean, guraso edo legezko tutoreei jakinaraziko diete. Guraso edo legezko tutoreek gertaeraren berri izan beharko dute. Guraso edo legezko tutoreei jakinarazten zaie Feel My Way Kooperatibako laguntzaileak lankidetzan arituko direla polizia agintaritzak adierazten dion guztian, parte-hartzaileen interesak babestuz. Horrez gain, larritasunaren arabera, ikasleak isun bat jaso dezake. Kasu hauetan, **Feel My Wayko begiraleek ez dute dirurik aurreratuko**. Beraz, adibidez, ikasleren bat atxilotuta egonez gero, eta bertatik ateratzeko baldintza, dokumentazioa sinatzeaz gain, isun bat ordaintzea bada; guraso edo legezko tutoreen aldetik isun hori ordaintzeko dirua jaso arte eta zein pauso jarraitu beharko diren zehaztu arte, Feel My Way Kooperatibako laguntzaileek ezingo du kopuru hori ordaindu ezta ezer sinatu ere.
- Parte-hartzaile bakoitzak bere sendagaiak zaindu beharko ditu, eta ez Feel My Way Kooperatibak ezta taldeko laguntzaileek ere ez dituzte haien gain hartuko sendagaien galera edo narriadurak.
- Bidaian zehar ikasleren batek minik hartuko balu, Feel My Way Kooperatibako laguntzaileek oinarrizko laguntza bakarrik emango diote ikasleari. Une horretan bertan, behar izanez gero, larrialdietako zerbitzu medikoetara deituko dute. Hau da, zauri baten kasuan, zauria garbitu eta babesteko lanak egin ahalko dituzte. Baina ezingo dute produktu berezirik erabili edota pilularik eman. Hortaz, lehen sorospeneko laguntzatik at dagoen asistentziarik/medikamendurik behar izanez gero zuzenean osasungintzako profesionalengana joko da (urgentzietara, ospitalera, anbulategira...). Salbuespen bakarra, ikaslearen guraso edo legezko tutoreen aldetik eskaera jasotzea da. Hau posible izateko, ikaslearen guraso edo legezko tutoreen idatzizko baimena jaso beharko dute Feel My Wayko laguntzaileek (idatziz/emailez/Whatsappez).

- Gaueko planak:

### **Testuingurua:**

***Kontuan izan behar dugu Salouko bidaiak gaueko aisialdia hartzen dutela, gazteek gauez hoteletik atera nahi izaten dutela eta lehentasun bezala diskoteketara sartzea izaten dutela. Salouko gaueko bizitza ezin da aurreikusi. Egoera goitik behera aldatzen da gauero; baliteke gau batean diskoteka batera arazorik gabe sartzea, eta hurrengoan sarrera ukatzea, batez ere, azken urteotan horrelako establezimenduetan egiten ari diren polizia-kontrolengatik.***

***Feel My Way Kooperatibaren laguntzaileek euren esperientziaren arabera gau bakoitzeko egoera baloratzen dute, eta taldearentzat plan bat proposatzen dute, taldearen interesak ere kontuan hartuta. Taldeak plan alternatiboa proposatu ahalko du eta Feel My Way Kooperatibaren laguntzaileek baloratuko dute, beti ere bidaiaren arauak betetzen direla bermatu beharko da eta.***

—Hay ciertos conceptos jurídicos determinados de carácter técnico que han sido traducidos directamente del castellano, por lo tanto, ante cualquier duda, rogamos se dirijan al documento en castellano para su mejor comprensión <https://labur.eus/fqHsl> —

### **Planak honako hauek izan daitezke (erabilgarritasunaren arabera):**

#### DISKOTEKA:

- **Sarreren kudeaketa:** Feel My Way Kooperatiba ez da sarrera horien saltzaile izango. Laguntzaileen bitartez laguntza emango da diskotekako sarrerak kudeatzeko, baina hauen salmenta zuzenean diskotekek egingo dute.
- **Sarrera motak:** Sarrerak alkoholdun edaririk gabekoak izango dira kasu guztietan, bidaiari alkohola kontsumitzea debekatuta dagoelako. Beraz, ikasleren batek bere kabuz alkoholdun sarrera duen sarrera erosten badu, bidaiako arauak ez ditu beteko. Beraz, parte-hartzailearen erantzukizuna izango da, eta ez Feel My Way Kooperatibaren erantzukizuna.
- **Diskoteka barruan:** Salouko diskoteka, pub eta aisiarako establezimenduak diskoteka konbentzionalak dira, horietako batzuk adingabekoentzako beste batzuk baino prestatuago daudenez, hasierako horiek lehenesten dira. Legeak argi eta garbi adierazten du adingabeei ezin zaiela alkoholik saldu. Hala ere, baliteke parte-hartzailearen batek edari alkoholdunak lortzeko modua aurkitzea.  
Feel My Way Kooperatibak ezin du bermatu, bere aldetik behar diren kontrol-neurri guztiak jarrita ere, parte-hartzaileek diskoteka horietan alkoholik konsumituko ez dutela, diskoteka barruko kondizioak direla eta: ikusmen gutxi, 500 gazte baino gehiago... **Bidaia hasi baino lehen, ezinbestekoa izango da familiek puntu honi buruz parte-hartzaileak kontzientziatzea.** Izan ere, laguntzailearen ardura ez da diskoteka, pub edo aisialdiko beste gune batzuetako zaindariak izatea.
- **Itzultzeko ordutegiak:** Feel My Way Kooperatibaren laguntzaileek hotelera taldeka itzultzeko derrigorrez bete beharreko ordutegiak zehazten dituzte. Honako hauek errespetatzea ezinbestekoa da, inor bakarrik itzuli ez danin. Norbaitek baldintza hauek errespetatzen ez baditu, laguntzaileek ezin dute parte-hartzaileen segurtasunaren erantzule izaten jarraitu. Itzulera ordu hauek taldeak egunez eta gaez duen jarreraren arabera alda daitezke.
- Feel My Way Kooperatibaren laguntzaileek, ahal den neurrian, diskotekek gazteei sarrerak saltzen dizkiela egiaztatuko dute, guztiak sarrera erosteko aukera izan dezaten. Norbaitek sarrera erosteko aukera izango ez balu (establezimenduaren murrizketengatik), ezingo du taldeko inork establezimendu hortako sarrerarik erosi eta beste plan bat proposatuko da. Diskotekak gazteei sarrerak saltzeko orduan murrizketarik ez badago, baina gero diskotekara sartzerako unean, establezimenduaren arauen ondorioz sarrera ukatzen bada, Feel My Way Kooperatibaren laguntzaileek egoera baloratuko dute, parte-hartzaile horiei ordezkotako plan bat emateko (denbora libre, gaua hondartzan pasatzea edota hotelera joatea).

#### HONDARTZA.

- Atsedeen eguna: Bidaiak 4 gau edo gehiago dituenetan, gutxienez gau bat atsedeen hartzeko gaua izango da. Gau horretan, normalean proposatzen den plana hondartzara joatea izaten

—Hay ciertos conceptos jurídicos determinados de carácter técnico que han sido traducidos directamente del castellano, por lo tanto, ante cualquier duda, rogamos se dirijan al documento en castellano para su mejor comprensión <https://labur.eus/fqHsl> —

da. Feel My Way Kooperatibaren laguntzaileekin jolasak egin ahal izango dira, musika entzunez lasai egon, etab.

Taldeak behin eta berriz esaten badu Feel My Way Kooperatibako laguntzaileek proposatutako hondartzako plana ez dela euren gustukoa, eta egunean zehar errespetuzko jarrera izan eta bidaiako arauak bete badituzte, posible da laguntzaileek gazteei denbora libre ematea.

#### TIEMPO LIBRE.

- Taldeak denbora libre izango balu, Feel My Way Kooperatiba eta bertako laguntzaileak ez dira une hauetan gertatzen denaz arduradun egingo (ez parte-hartzaileen ongi izateaz ezta hauek egin ditzazketen akzioez ere), Feel My Way Kooperatibako laguntzaileak momentu horietan ez baitira parte-hartzaileekin egongo. Hori bai, laguntzaileek denbora libre horretan bete beharreko jarraibide eta kondizio batzuk jarriko dituzte eta laguntzaileak parte-hartzaileekin harremanetan egongo dira, edozer dela eta eurrekin harremanetan jarri ahal izateko. Feel My Way Kooperatibako **laguntzaileak zehaztutako ordutegian eskuragarri egongo dira, edozertan lagundu ahal izateko.**

#### HOTELA.

- Bidaiako parte-hartzaileek gauez hotelean geratzea nahi badute, **laguntzaileei jakinarazi beharko diete**, haiek jakin dezaten nor diren hotelean geratzen direnak eta modu horretan zenbaketa-lanak egin ahal izateko. Feel My Way Kooperatibako laguntzaileek, parte-hartzaile horien jarrera baloratu ostean erabakiko dute ea pertsona horiei hotelean geratzea onartzen zaien ala ez.

Feel My Way Kooperatibako laguntzaileak **adierazitako ordutegiaren barruan beti taldearen eskura egongo dira**. Ordutegi horiek igaro ondoren, parte-hartzaile guztiak hotelean egon beharko dira, bakoitza bere logelan eta ohean. Feel My Way Kooperatibako laguntzaileak ere euren logeletan atseden hartzen egongo dira; izan ere, hurrengo egunean laguntzaile izaten jarraitu behar dute, eta sor daitekeen edozein gora beheratarako prest egon behar dira.

Feel My Way Kooperatibak **ezin izango du ziurtatu, erretiratzeko orduaren ostean, parte-hartzaile guztiak hotelean daudela** parte-hartzaile hauen laguntzarik gabe. Izan ere, aldi berean hainbat plan ezberdin egon daitezke (hotelean geratu, gaua hondartzan pasatu, denbora libre...). Horregatik, oso garrantzitsua da Feel My Way Kooperatibako laguntzaileei uneoro egingo diren planen berri ematea eta kokapenak partekatzea, laguntzaileek kontrola eraman dezaten. Baina batez ere, parte-hartzaile bakoitzak bere orduak errespetatzea izango da garrantzitsuena.

Horrez gain, bidaiako parte-hartzaile bakoitzak **arau hauek izan behar ditu kontuan**:

- **Alkohola edo bestelako substantzia ilegal psikotropiko eta estupefazianteak kontsumitu, manipulatu eta salerosketa egitea guztiz debekatuta dago.** Adin txikiko parte-hartzaileek ezingo dute ez alkoholik ezta drogarik kontsumitu, eta erre ere ez (hotelean, kalean edota diskotekan). Laguntzaileek produktu horiek konfiskatzeko baimena bakarrik, bidaiako ohiko errutinetan aurkitzen badituzte izango da, hau da laguntzaileek ez dituzte inoiz sarekadak (redada) egingo. Guraso edo tutore legalek euren

—Hay ciertos conceptos jurídicos determinados de carácter técnico que han sido traducidos directamente del castellano, por lo tanto, ante cualquier duda, rogamos se dirijan al documento en castellano para su mejor comprensión <https://labur.eus/fqHsl> —

seme-alabei bidaiatzeko baimena ematean, aurreko puntuko substantziak erretiratuak izango direla onartzen dute, bidaiaren jarraipen egokia bermatzeko. Kontuan izan behar da, produktu hauek konfiskatzea, parte-hartzaileen errutinan arau hau hausten bada bakarrik egingo dela.

- **Feel My Wayko laguntzaileek ostatura itzultzeko ezartzen duten ordutegia errespetatzea derrigorrezkoa da**, eta ezin zaie laguntzaileek ezartzen dituzten baldintza edo pausuei inongo momentuan kontra egin. Ikasle guztiak ostatura **taldean itzuli beharko dira**, eta ezingo da inor bakarrik ibili.
- Behin hotelera itzuli ostean, **guztiz debekatuta dago hoteletik ateratzea, laguntzaileekin beste zerbait hitzartuta dagoen kasuetan izan ezik**. Laguntzaileek ez dute zaintza-lanik egingo gaez. Parte-hartzailearen bat hoteleko instalazioetatik laguntzailearen baimenik gabe irteten bada, Feel My Way Kooperatiba eta laguntzaileak inola ere ez dira izango gertatutakoaren erantzule. Hoteleko instalazioak soilik, Feel My Wayko laguntzaileen baimenarekin utzi ahalko dituzte, eta uneoro haiekin harremanetan egongo dira denborak behar bezala kontrolatzeko.

## ONDORIOAK

Arau hauetakoren bat hausten bada, Feel My Way Kooperatibako laguntzaileen esku geratuko da parte-hartzaileen gurasoei abisua pasatzea edo egoeraren berri ematea beharrezkoa den ala ez baloratzea (laguntzaileek ahal dutenean). Eta gertatu denaren larritasunaren arabera ondorio ezberdinak egongo dira:

- Abisu bat ematea.
- Gaueko plan gabe geratzea.
- Programatutako ekintzarik gabe geratzea.
- Hurrengo eguneko planik gabe geratzea. Kasu honetan, plangintzaren arabera arduradunetako bat ikaslearekin/ikasleekin ostatuan geratuko da edo ikasle horrek/horiek arduradunekin igaro beharko dute egun osoa.
- Bidaia guztiko planik gabe geratu eta egun guztiak ostatatik irten gabe igarotzea.
- Etxera itzultzea, legezko tutoreekin sanzio hau kudeatuz.

Ondorio hauek banakakoak edo taldekoak izango dira. Kasuaren eta larritasunaren arabera.

Ikaslearen guraso edo legezko tutoreek Feel My Way Kooperatibari eta bidaiko laguntzaileei ondorio hauek aplikatzeko erabakia Feel My Way Kooperatibako laguntzaileen kriterioa kontuan izanez hartzeko baimena ematen diete.

Gainera, ondorio hauek sortutako kostu ekonomikoak parte-hartzaileak edo bere guraso edo legezko tutoreek ordainduko dituzte, eta Feel My Way Kooperatibak edo bertako laguntzaileek ez dute diru hau aurreratuko.

***Ezinbestekoa izango da gurasoek eta legezko tutoreek bidaia egin aurretik euren seme-alabekin kontzientziazio lanak egitea, hau da, laguntzaileen jarraibideak betetzearen, hotelera itzultzeko orruak errespetatzearen eta gainontzeko elkarbizitza arauen garrantzia adieraztea. Bidaiaren arauak dokumentu honetan argi eta garbi azaltzen dira, eta bidaia hasieran talde osoari ere azalduko zaizkio, parte-hartzaileek zalantzarik izan ez dezaten. Arau***

—Hay ciertos conceptos jurídicos determinados de carácter técnico que han sido traducidos directamente del castellano, por lo tanto, ante cualquier duda, rogamos se dirijan al documento en castellano para su mejor comprensión <https://labur.eus/fqHsl> —

**hauek betetzea parte-hartzaile bakoitzaren erantzukizuna izango da, esperientzia hau guztientzat atsegina izan dadin, eta pena bat izanez esperientzia hondatzea portaera desegokiengatik.**

**Laguntzaileen lana esperientzia honetan ikasleei LAGUNTZEA da, bidaia ahaztezina izan dadin eta guztiek primeran pasa dezaten. Laguntzaileek edozein egoeratan parte-hartzaileei laguntza eskeiniko diete eta euren zalantzak argituko dituzte. Hori bai, parte-hartzaileen lana izango da orrialde hauetan azaldutako arauak betetzea. Laguntzaileak ez dira polizia edo zaindariak izango eta, beraz, haien lana ez da bidaiako arauak hausteko aukera duten parte-hartzaileen atzetik ibiltzea.**

**Feel My Way Kooperatibako laguntzaileek ere ezin dute ziurtatu, bidaiari zehar, parte-hartzaileen ongizatean eragina duten akzioak gertatuko ez direnik. Ekintza horiek aurreikusi ezinak dira, hirugarren batzuek parte hartzen baitute eta Feel My Way Kooperatibako laguntzaileek ezin dituzte kontrolatu.**